

# Basurtu: ospitale baten jaiotza

**Alvarez Yeregi, Mikel**

Medikua eta Gurutzetako Ospitaleko zuzendari nagusia



ARGAZKIAK: BASURTUKO OSPITALEA

**Azaroaren 13an ehun urte beteko dira Basurtuko Ospitalea zabaldu zutenetik. Garai hartako beharrei erantzuteko eraiki zuten, Bizkaiko populazioaren hazkuntzak ekarri zuen osasun-egoera berriari, batez ere. Basurtuko Ospitalea erreferente bihurtu zen Euskal Herriko osasun-sisteman. Orain, une ona da atzera begiratzeko eta Basurtu eta garai hartako beste ospitaleen eredia aztertzeko.**

XIX. MENDEA ZAILA IZAN ZEN EUSKALDUNENTZAT: hiru gerra izan ziren gure lurraldeetan, lehia iraunkorra Espainiak atzerrian zeuzkan lurretan, lau kolera-epidemia (1834,1854-55,1885 eta 1893), populazio-hazkuntza handia eta abar.

Bilbotarrentzat are zailagoa izan zen mendearen bigarren aldia. Mendearen lehenengo erdialdean, Bilbo oso ondo antolatutako hiria zen, biztanle gutxikoa, 10.000 mila gutxi gorabehera. Ura hiriko hainbat iturritatik hartzen zuten, eta edateko ura zabaltzeko azpiegitura eta osasun publikoko neurri aurreratuak zituzten. Eta hilkortasun-tasak txikiagoak izan ziren bigarren erdialdekoak baino. Zer gertatu zen, bada? Ez da zaila asmatzea: Bizkaiko burdingintza zabaldu, eta horrek populazio-hazkuntza ekarri zuen, egitura soziala antolatu baino lehen. Osasun publikoak atzerapauso handi bat eman zuen, eta gaixotasun infektzioek hilkortasun-tasak handitu zituzten. Ezkerraldean, burdingintzaren bihotzean, bizitza-itxaropena hamar urte gutxitu zen, eta haur-hilkortasuna bikoiztu egin zen.



Revilla pabiloia: tuberkulosoen pabiloia.

Bestalde, kolera azaldu zen Europan eta Espainian, eta lehen-dabiziko epidemia 1834an sartu zen Bizkaian. Kolera eta tuberkulosia izan ziren, dudarik gabe, XIX. mendea zauritu zuten gaixotasunak. Eta, haiekin batera, tuberkulosia, gripea, kolera, nafarria, elgorria, sukar tifoidea, sifilia... Horiek kon-tuan hartuta eraiki zen Bilboko Ospitale Zibila Basurtuko lurretan.

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoa den lurraldeak 600.000 mila biztanle zituen orduan, eta Bilbok horietako 80.000 biltzen zituen. Emakume bakoitzak 3,53 haur zituen, eta batez besteko bizitza-itaropena 35 urtekoa zen. Haurren hilkortasun-datuak eskasak badira ere, handia zen: jaiotako mila haurretik 200 hiltzen ziren lehen urtean.

Osasun-asistentziari dagokion aldetik, esan beharra dago Bilbok bazuela ospitale bat, Atxurikoa. Mendearen hasieran zabaldu zuten, 250 oherekin, eta nahikoa hutsik egoten zen, mendearen lehen erdialdean behintzat.

*“ordura arteko ospitaleak bloke batean eraikitakoak izaten ziren, baina, higienistek bultzatuta, pabiloiz osatutako ospitaleak nagusitu ziren”*


### Ospitale berria eta XX. mendea

Ordura arteko ospitaleak, Atxurikoa esaterako, bloke batean eraikitakoak izaten ziren, baina mendearen bigarren erditik aurrera, higienistek bultzatuta, arkitektura-planteamendu berriak aplikatzen hasi ziren munduko herrialde aurreratu-nak, Ipar Europakoak eta AEB, alegia. Diseinu berri haietan oinarritzat hartzen ziren irizpideek zerikusi handia zuten infekzioen kontrolarekin, infekzioen zabalpena mugatzearekin. Ospitale-blokeek pabiloiz osatutako ospitaleei eman zieten txanda. ➔



Garaiko bi ospitaleak. Goian, Atxuriko ospitale zaharra. Behean, Basurtuko ospitale berria.

Pabiloi batean baino gehiagotan antolatuta egoteak gaixotasun infekziosoak besteekin ez nahastea zekarren, eta gaixo jakin batzuen isolamendua bidera zezakeen. Sasoi hartakoak dira Parisko Lariboisière (1854), Tenon (1875) eta Hôtel-Dieu (1876), Ingalaterrako Blackburnen (1859), Edinburgokoa (1878) eta Estatu Batuetako Baltimoreko J. Hopkins Ospitalea. Pabiloien sistemak zabal-kunde handiena Alemanian izan zuen, eta oso ospetsuak izan ziren, besteak beste, Berlingo Friedrichshain (1868) eta Tempelhof (1878) eta Hanburgoko Eppendorf (1892).



Ospitale berriak izan behar zituen pabiloien aurreikuspena.

Ospitalearen eraikuntza antolatu zuen erakundeak, Junta de Caridad zelakoak, eskaera bat egin zien bi bilbotarri, Carrasco doktoreari eta Epalza arkitektoari: Europar barrena bidaiatu behar zuten, ospitaleak ikusiz, eta haietatik ideia berriak ekarri. Hala, medikuak eta arkitektoak hiru hilabeteko bidaiara egin zuten Europako herrialde askotan barrena. Arkitektoak Hanburgoko Eppendorf Ospitalea hartu zuen eredu gisa.

*“Carrascok eta Epalzak aurkeztutako bi txostenetan, sei berrikuntza eta ekarpen proposatu zituzten”*

Carrascok eta Epalzak aurkeztutako bi txostenetan, sei berrikuntza eta ekarpen proposatu zituzten. Lehenengo biek zioten gaixoak behatzeko pabiloi bat behar zela, eta beste bat tuberkulosia zutenentzat. Hirugarren proposamena zen septikoak eta aseptikoak banatu behar zirela. Garai hartako irizpideen arabera, gaixo kirurgikoen % 20 septiko jotzen zen, eta aparteko tratamenduak jaso behar zituzten, batez ere gaixo aseptikoak ez kutsatzeko. Laugarren ekarpenak haurrekin zuen zerikusia; ez zegoen garbi zein izan zitekeen modurik onena haurren ospitaleratzeak egiteko. Hasieran

emakumeen pabiloitan ingresatzearen aldekoak izan baziren ere, geroago haurrentzako aparteko pabiloi bat eraikitzeke joera nagusitu zen. Bosgarrena infekziosoak banatzea zen; hala, nafarriaren, elgorriaren, eskarlatinaren eta difteriaren pabiloia egitea proposatu zuten. Azkenik, hainbat xehetasun zehaztu zituzten, hala nola pabiloien orientazioa, garaiara, pabiloien arteko distantzia eta abar.

## Ebakuntza-gelak lehen eta orain



1908



1929

Carrascoren eta Epalzaren ekarpenak kontuan hartuta, ospitalea eraikitzeari ekin zioten. Beste hainbat berrikuntza ere gehitu zuten. Adibidez, 1902ko monografiko batean aipatzen da ospitaleak laborategi bakterio-fisiologiko bat izango zuela, eta, han, hazkuntzak egiteko berogailuak eta saiakuntzak egiteko animaliak ere izango zirela. Eraikuntza hamar urteko epean egin zuten, 1898tik 1908ra. Ospitalea zabaldu zen urtean, 3.213 ospitaleratze izan ziren (1698 gizonetako eta 1515 andrazko), batez besteko egonaldia 31 egunekoa izan zen, eta % 10ekoa izan zen hilkortasuna.

*“ehun urte hauetan bidaiatzeko gaixotasun baten eskutik joan behar izanez gero, hori tuberkulosia da”*

## Tuberkulosia

Ehun urte hauetan bidaiatzeko gaixotasun baten eskutik joan behar izanez gero, hori, dudarik gabe, tuberkulosia da. Tuberkulosiaren hilkortasuna ospitalean % 41ekoa zen 1909an, eta 235 gaixo artatu ziren urte hartan. 1932an, Arrospeide doktoreak zeukan tuberkulosoaren arduraren, eta, horretarako, 164 oheko pabiloi bat zeukan, Revilla pabiloia. 1946an hilkortasuna oraindik % 22koa zen, eta hilkortasunaren beherakada 50-60ko hamarkadatik aurrera hasi zen ikusten.

Eta, hala, neurri epidemiologikoen eraginagatik eta tuberkulosiaren kontrako tratamendu antibiotikoen eraginagatik, gizarreak uste izan zuten tuberkulosia gainditutako gaixotasuna zela. Baina ez: 80ko hamarkadan sortu berri zen

## Ehun urtean zehar

**1910.** Laborategietako espezialitateen hastapenak izan ziren. Ospitalearen Arautegi Orokorrean irakur daitekeenez, laborategiko buruaren ardura ziren analisi klinikoak.

**1914.** Ospitaleak erabaki zuen laborategi klinikoa izatea eta farmaziatik aldentzea. Horretarako, Angel Lopez doktorea izendatu zuten, eta anatomia patologikoko museo bat sortzeko agindu zioten.

**1932.** Gaixotasun infekzioen antolaketa berri bat asmatu zuten, eta Haur eta Helduentzako Gaixotasun Infekzioen Departamendua zabaldu zuten. Tuberkulosiaren eta benereoen antolaketa aldatu gabe, beste zabalpen bat asmatu zuten elgorriari, eskarlatinari, nafarreriarri, astanafarreriarri, isipulari, kukurruku-eztulari, tifus exantematikoari, sukar tifoideari... eta beste hainbati aurre egiteko.

**1939.** Ospitaleak 850 ohe zituen.

**1942.** Laborategien garapena Gerra Zibilaren ondoren gertatu zen, medikuntzak berak eskutik zekarkigun espezializazioarekin batera. Medikun Arautegiak lau atal bereizten zituen. Lehen atalean, medikuntzan, gaixotasun infekzioen zerbitzuak biltzen zituen, baina aparteko atalean kokatzen zuten fisiologia. Lagarren atalean, zerbitzu lagungarriak arautzen ziren, eta horren barruan zeuden: bakteriologia- eta serologia-laborategia, kimika biologikoa, anatomia eta biologia esperimentalak, farmazia, fisioterapia eta erradiologia, autopsiak eta anatomia patologikoa eta desinfekzioa eta esterilizazioa.

**1965.** Martin Axperen agintepean, Mikrobiologia, Serologia eta Immunologia Zerbitzua sortu zen.

**1978.** Mikrobiologiako zerbitzua berritzi zen, eta, horrekin, beste bultzada bat eman zitzaion infektologiari, arlo askotan.

**1985.** Gaixotasun infekzioen atal berria antolatu zuten. Infektologia aldetik, gehienbat GIBaren epidemiak ekarritako osasun-arazoak ikusi ditugu azken 25 urteetan. Hasieran (80ko eta 90eko hamarkadetan) era bortitzean, eta 2000. urtetik aurrera leunago, medikamentu berriei esker. Mikrobiologoen auzuraren paregabea izan dute GIBarekin 'mikrobio-artalde' berri, ezezagun eta miresgarriak ikusteko azken 25 urte hauetan. Berdin gertatu zaie klinikoei, orain arte liburuetan bakarrik ikas zitezkeen hainbat eta hainbat gaixotasun hona, etxeko atarira, etorri zaizkienean.



gaixotasun biriko batek, GIBak, eskutik zekarren tuberkulosiaren hazkundera (beste infekzio askoren artean).

Tifusa eta sukar tifoideak (ez dira ondo bereizten testuetan), garbitasun eskasarekin zerikusia dutenez, gutxitzen joan ziren gizartea garatu ahala, eta gerra ondorengo urteetan bakarrik izan zuten gorakada bat. Nafarriarekin ere antzera gertatu zen: mendearren hasieran, 40 kasu agertu ziren, baina gero beherantz egin zuen, 1980an desagertu zen arte (salbuespena 1918-1920 urteetan gertatu zen). Difteriaren kasuan, esan beharra dago kezkarriena haren hilkortasuna zela, eta 1964. urtean lau kasu besterik ez

zirela gertatu. Elgorriak, eskarlatinak eta kukurruku-eztulak garrantzia galdu zuten mendearren bigarren erdian, nahiz eta aldi behin hazkundera txikiren bat ikus genezakeen oraindik, epidemiaren baten eraginagatik.

## Infekzioak gainbeheran

Gaixotasun infekziosoen iraunkortasuna edo maiztasuna nabarmen gutxitu zirenez 1960 urtetik aurrera, ospitalean ere antolaketa berriak moldatu zituzten, eta infekzioen pabiloiak beste eginkizun batzuetarako erabiltzen hasi ziren.




Garaian garaiko azken teknologiaren adibideak. Goian, ospitalea berria zeneko desinfekzio-saila. Erdian, esterilizazio-gela. Behean, gaur egungo teknologiaren eredu, angiografo digital bat.

Gaixotasun infekziosoen indarra galdu zuten, gizartearen neurri epidemiologikoen eta antibiotikoen garapenak hesia jarri zieten 'mikrobio-artalde' haiei eta, nahiz eta 1918. urteko gripe-epidemiak oroi-menerako irakasgai bat eman zigun, gizakiok koloretako arraintxoaren gisako oroimena dugunez, konturatu baino lehenago, oharkabean, birus bat sartu zitzaigun gure lurretan, galkorregiak ginela gogorazteko.

*“gaixotasun  
infekziosoen  
iraunkortasuna edo  
maiztasuna nabarmen  
gutxitu zirenez,  
ospitalean ere  
antolaketa berriak  
moldatu zituzten”*

Gizakiok organismo bizien arteko bat gehiago baino ez gara, eta mikrobio nekazekin horiek eragin diezazkiguketuen gaixotasunak gaituztat eman bazituen ere *The Lancet* aldizkariak urte batean, hori gure amets sinpleena baino ez da izan.

1980. urtean GIBa izan zen. Gero, SARS ere erdian sartu zitzaigun, eta, orain, N1H5 hegaztiaren gripearen beldur bizi gara. Infekzio nosokomialak gurekin bizi dira, eta legionelosiak eta mikosiek behin baino gehiagotan hartzen digute neurria. Mikrobioak gu baino urte gehiago bizi izan dira Darwinen eboluzioan, eta kukuka jolas-tuko dute gurekin, eta kezka sortuko digute berri ere guk gutxiena uste dugunean.

Etorbizunean ere, infekzioek gurekin bidaiatuko dute; antola ditzagun ospitaleak horretarako. 

Artikulu hau "Infekzioak. 100 urteko historia Basurtuko Ospitalean" hitzaldiaren laburpena da. Hitzaldia Osasungo Euskalduntzeko Erakundearen urteko biltzarrean eman zuen Mikel Alvarez Yeregik, joan den urriaren 4an.